V. kapituluak Eraikuntzaren Kalitatea Kontrolatzeko Batzordea eratzen da, eta haren osaera, eginkizunak eta funtzionamendu-araubidea ezartzen dira, kalitate-kontrolari buruzko aurreko dekretuetan ezarritakoari jarraipena emanez. Batzordea handitu da, honako kide berri hauekin: Eusko Jaurlaritzan garraioaren eta herrilaren alorreko eskumena duen sailaren ordezkari, kalitatea kontrolatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko erakundearen ordezkari bat, eta Euskadiko Geologo Elkargo Ofizialeko ordezkari bat.

Amaitzeko, bi xedapen iragankor ditu testuak, bai eta eranskin bat ere, erantzukizunpeko adierazpenaren bi ereduak biltzen dituen, bat kalitatea kontrolatzeko erakundeentzat eta bestea saiakuntza-laboretegiarentzat.

Hori guztia dela-eta, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde-Juridikoaren adostasunarekin eta hark adierazitakoa entzunda, Gobernu Kontseiluak (e)ko (a)ren (e)an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

1.- Dekretu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, eraikuntza- eta urbanizazio-obrak erregimen publiko zein pribatuaren egikaritzean kalitatea kontrolatzeko prozedura arautzea.

2. Halaber, dekretu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan diharduten saiakuntza-laborategiak eta eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko erakundeak arautzea.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

1.- Dekretu hau bete beharko dute azaroaren 5eko 38/1999 Legeak, eraikuntza antolatzeari buruzkoak, ezarritakoari jarraituz, eraikuntzatzat hartzen diren eta proiektua behar duten obra guztiek.

2.- Halaber, urbanizazio-obrek nahitaez bete beharko dute dekretu hau, hirigintza-araudian ezarritakoari jarraituz urbanizazio-proiektua derrigorrez egin behar bada.

3.- Dekretu honetan ezarritakoa ulertuko da sektore-araudien ondorioz kasu bakoitzari dagozkion kontrolen kalterik gabe, bai instalazioetan, bai urbanizazioko zein eraikineko elementuetan (igogailuak, instalazio elektrikoak, telekomunikazio-instalazioak, berokuntza-instalazioak, etxeko ura berotzeko instalazioak, edo dekretu honetan arautuaz gainera berariazko kontrola behar duten beste instalazio batzuk).

4.- Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira ingeniari-tza zibileko obrak (azpiegitura, obra hidrauliko eta garraio-erako obrak, alegia).

II. KAPITULUA

ERAIKUNTZAREN KALITATEA KONTROLATZEKO PROZESUAREN FASEAK

1. ATALA

PROIEKTUA

3. artikulua.- Egikaritze-proiektua.

Egikaritze-proiektuen memorian eta baldintza tekniko partikularren orrian, eraikinetan behin betiko sartuko diren material, obra-unitate, ekipo eta sistemen ezaugarriak, betekizunak, estandarrak eta kalitatezko parametroak jasoko dira. Hori guztia, nahitaez bete beharreko araudi espezifikoak beteta eta proiektua idatzi duenak ezarritako irizpideei jarraiki.

4. artikulua.- Kalitatea Kontrolatzeko Plana.

1.- Egikaritze-proiektuak Kalitatea Kontrolatzeko Plana izeneko eranskina eraman beharko du nahitaez, eta plan horren balioespena proiektuaren aurrekontu zehatzaren barnean sartu beharko da, aparteko kapitulu gisa.

Teknikari gaituek idatziko dute Kalitatea Kontrolatzeko Plana, obra-motaren arabera, egikaritze-proiektuan eta planaren gainerako dokumentuetan adierazitakoarekin bat etorriz eta plana egin duenarekin koordinatuz, eskuragarri dauden eranskinak eta alde zehatzak kontuan hartuta.

3.- Edukia. Kalitatea Kontrolatzeko Planean honako alderdi hauek zehaztuko dira gutxienez:

a) Memoria, obraren datu orokorrak eta kalitatea kontrolatzeko aplikatu beharreko araudia barnean hartuta.

b) Produktuak, materialak, ekipoak eta sistemak obran hartzeko irizpideak, horiekin batera joan behar den dokumentazioa adierazita, Eraikuntzaren Kode Teknikoak ezarritakoaren arabera (7.2.1 eta 7.2.2 artikulua). Honako hauek esanbidez adierazi beharko dira:

- Jatorrizko dokumentazioa, hornidura-orrria eta etiketa.
- Fabrikatzailearen berme-ziurtagiriak.
- Adostasun-dokumentuak, CE markatua edo nahitaezko administrazio-baimenak.
- Eska daitezkeen edo borondatezkoak diren kalitatezko bereizgarriak.
- Produktu, ekipo eta sistema berritzaileen egokitasunaren ebaluazio teknikoak.

c) Saiakuntza bidezko hartze-kontrola behar duten produktuak, Eraikuntzaren Kode Teknikoak ezarritakoaren arabera (7.2.3 artikulua); eta produktu horiek onartzeko eta errefusatzeko irizpideak, honako hauek adierazita:

- Saiakuntza bidez egiaztatu beharreko gutxienezko edo gehieneko parametroak.
- Eraikuntzaren Kode Teknikoan, kode horri eragiten dioten eta nahitaez bete beharrekoak diren indarreko jarraibide edo erregelamenduetan eta egikaritze-proiektuaren zehaztapenetan oinarrituta egin beharreko saiakuntzak, azterketak eta probak.
- Probatu beharreko sortak eta Kalitatea Kontrolatzeko Planaren garapenaosatzen duten gainerako parametroak zehaztea.

d) Obraren egikaritzearen kontrola ezartzeko irizpideak, Eraikuntzaren Kode Teknikoak ezarritakoaren arabera (7.3 artikulua), honako hauek esanbidez aipatuta:

- Proiektuan adierazitakoarekiko adostasuna, legeria aplikagarria, eraikuntza-jardunbide egokiaren arauak eta zuzendaritza fakultatiboaren instrukzioak egiaztatzeko egin beharreko egiaztapenak eta gainerako kontrolak.
- Eraikuntzako produktu, elementu eta sistemen arteko bateragarritasuna ziurtatzeko beharrezko neurrien gainean egin beharreko egiaztapenak.

e) Eraikinaren azken prestazioak egiaztatzeko egin beharreko egiaztapenak eta zerbitzu-probak.

f) Kalitatea Kontrolatzeko planaren balioespen ekonomikoa; aurreikusitako saiakuntza, azterketa eta proba bakoitzaren kopurua eta kostua zehaztuta.

5. artikulua.- Proiektuaren kontrola.

Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorrean eskumena duen sailburuaren aginduaren bidez ezarriko dira obra egikaritu aurretik egin beharreko proiektuaren kontrol tekniko osoa edo egoki irizitako zatia egiteko modua eta baldintzak, obra-motaren eta xedearen arabera, Eraikuntzaren Kode Teknikoarekin bat datorrela, aplikatu beharreko gainerako araudia betetzen duela eta definizio- eta kalitate-maila egokiak dituela egiaztatze aldera.

2. ATALA

OBREN GARAPENA

6. artikulua.- Obrak hasi aurrekoa.

1.- Sustatzaileak egikaritze-proiektuaren ale oso bat helaraziko dio zuzendaritza fakultatiboari, obren kalitatea kontrolatzeko prozesua eraginkortasunez koordinatzea helburu hartuta. Ale hori obran gordeko da, eta etengabe eguneratuko da, obran zehar gerta litezkeen aldaketak berrtatuz.

2.- Zuzendaritza fakultatiboa jakinaren gainean egonik, sustatzaileak kalitatea kontrolatzeko laborategi baten edo batzuen zerbitzuak kontratatuko ditu Kalitatea Kontrolatzeko Planean bildutako saiakuntzak, probak edo azterketak egiteko, eta planaren edo dagokion zatien ale bat jarriko du laborategi bakoitzaren eskura.

3.- Laborategiek zuzendaritza fakultatiboari emango dizkiote dekretu honen 16. artikulua 3. idatz-zatian ezarritakoa betetzen dela egiaztatzen duten agiriak.

Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko laborategiak administrazio publikoenak izanez gero, lehen adierazitako dokumentazio hori ez dute helarazi beharko.

4.- Eraikitzaileak, Kalitatea Kontrolatzeko Planarekin eta eragiten dion indarreko araudiarekin bat etorritik, kontrolerako baliabideen eta kontrolaren dokumentazioa bildu eta entregatzeko sistemaren aurreikuspena egingo du, eta laginketarako arduraduna izendatuko du, gainerako eragileekin koordinatuta. Horren berri emango dio zuzendaritza fakultatiboari, jakin dezan, eta, hala badagokio, onar dezan.

7. artikulua.- Materialak, ekipoak eta sistemak hartzea.

1.- Obrak egikaritu bitartean, nahitaez bete beharreko araudiak, eta, hala badagokio, proiektuak, eskatutako identifikazio- eta berme-dokumentuak jarriko dituzte hornitzaileek eraikitzailearen eskura; eta hark obrak egikaritzeko zuzendaritzari helaraziko dizkio, bai eta kalitate-bereizgarriari, egokitasun-ebaluazio teknikoei, eta erabilera- eta mantentze-jarraibideei buruzko dokumentazioa ere.

2.- Obra egikaritzeko zuzendaritzak egiaztatuko du dokumentazio hori materialak, ekipoak eta sistemak hartzeko nahikoa dela, eta egokitzen jotzen dituen saiakuntza eta probak aginduko ditu, Kalitatea Kontrolatzeko Planean zehaztutakoaren eta zuzendaritza fakultatiboak agindutakoaren arabera.

3.- Kalitatea kontrolatzeko kontratatutako laborategiek emaitzen kopia bana helaraziko diete obrako zuzendaritzari eta obrak egikaritzeko zuzendaritzari.

8. artikulua.- Obra egikaritzeko kontrola.

Obra-unitate bakoitzaren egikaritze-kontrola egingo da. Horrenbestez, zuinketa, erabilitako materialak, banaketa eta obra behar bezala egikaritu izana egiaztatuko dira, eta kontrol hori idazki batean jasoko da, baita egikaritze-prozesuan edo obra amaitu ondoren egingo diren egiaztapenak eta zerbitzu-probak ere, eta obra egikaritzeko zuzendaritzak bilduko du informazio hori guztia.

9. artikulua.- Materialak eta obra-unitateak onartzea edo ukatzea.

1.- Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorrean eskumena duen sailaren sailburuak emandako agindu bidez ezarriko diren fitxa normalizatuetan adieraziko da materialak eta unitateak onartu edo ukatu diren.

2.- Saiakuntza, proba eta azterketen materialak edo emaitzak bat ez badatoz egikaritze-proiektuan ezarritakoarekin, hau da, proiektu hori osatzen duten dokumentu guztietan (memoria, baldintza-agiria, neurketak eta aurrekontua, segurtasunari eta osasunari buruzko



azterlana, Kalitatea Kontrolatzeko Plana, hondakinak kudeatzeko azterlana eta planoak) ezarritakoarekin, zuzendaritza fakultatiboak neurri zuzentzaile egokiak ezarri eta justifikatuko ditu, eta horiek guztiak jasota utziko ditu. Agindu eta Asistentzien Liburuan eta aipatutako fitxa normalizatuetan (fitxa horiek Kalitate Kontrolako Liburuari erantsiko zaizkio).

10. artikulua.- Eraikinaren saiakuntzak eta zerbitzu-probak.

Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorrean eskumena duen sailaren sailburuak emandako aginduaren bidez prozedura egokiak arautu eta ezarriko dira, Eraikuntzaren Kode Teknikoa eta gainerako araudi aplikagarria betetzen dela egiaztatzeko zerbitzu-proba eta saiakuntzak egiteko.

11. artikulua.- Dokumentazioa eta trazabilitatea.

1.- Kalitate-kontrolarekin zerikusia duten jarduera guztiak behar bezala dokumentatu behar dira, haien trazabilitatearen jarraipena egin ahal izateko, eta erregistro fisiko edo elektronikoa erabil daitezke horretarako, egindako egiaztapen, saiakuntza-akten eta ikuskapen-parteen agiri guztiak eskura eduki ahal izateko, bai eta hornidurei buruzkoak ere, egoki izanez gero.

2.- Pertsona fisiko arduradun batek sinatuko ditu hornidura-orriak, hornitzailea ordezkatzuz.

3.-Jarduera egiteko arduradunak sinatuko ditu kontrol-jardueren erregistroak, bai eta kontrolatutako jardueraren edo horniduraren arduradunak ere, bertan egonez gero.

4.- Prozedura elektronikoei dagokienez, abenduaren 19ko 59/2003 Legeak, sinadura elektronikoa buruzkoak, ezarritakoa bete beharko du sinadurak.

12. artikulua.- Kalitate Kontrolako Liburua.

1.- Obra egikaritzeko zuzendaritzak, obra egiten den bitartean, Kalitate Kontrolako Liburua egingo du, eta agiri hori obraren jarraipena egiteko nahitaezko dokumentuetako bat izango da.

2.- Edukia: Kalitate Kontrolako Liburuak honako dokumentu hauek bilduko ditu:

a) Esku hartu duten eragileen erregistroa.

b) Egindako kontrolen zerrenda.

c) Egindako saiakuntza, proba eta azterketen emaitzak, bai eta egikaritze-prozesuan edo obra amaitu ondoren egiten diren egiaztapen eta zerbitzu-proben emaitzak ere.

d) Materialen eta obra-unitateen onarpena edo errefusatzea adierazten duten fitxa normalizatuak.

e) Laborategien ziurtagiria, egindako saiakuntza, proba eta azterketen mota eta kopurua adierazten dituenak.

f) Laborategiei buruzko dokumentazioa, 16. artikulua 3. idatz-zatian ezarritakoa betetzen dutela egiaztatzen duena.

g) Berme-ziurtagiriei, bereizgarriei, kalitatezko marka edo zigiluei, homologazioei eta antzeko agiriei buruzko dokumentazioa.

h) Eraikitzaileak bildutako jatorrizko dokumentazioa, hornidura-orriak edo etiketak, obra egikaritzeko zuzendariak ikuskatu ondoren, obraren kalitate-kontrolaren zati diren aldetik, edo, hala badagokio, hornidura-ziurtagiriak.

i) Materialak edo obra-unitateak errefusatzearen ondorioz sortutako dokumentuak, bai eta hartutako neurri zuzentzaileei buruzkoak ere, hala nola txostenak, justifikazioak, konponbideak, egiaztapenak eta antzekoak.



j) Egikaritze-proiektuko materialen kalitateei edo espezifikazioei buruzko aldaketak, Kalitatea Kontrolatzeko Planaren aldaketak eta aldaketa horien ondorioz ezarri diren neurri zuzentzaileen justifikazioa.

k) 14. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako txostena, hala badagokio.

Horrek guztiak adierazi eta justifikatuko du obra horri dagokion nahitaezko araudia bete dela, nola materialei hala obra-unitate eta instalazioei dagokienez.

3.- Obraren zuzendaritza fakultatiboak eta eraikitzaile orokorrak, eta, hala badagokio, haren erantzukizun partziala duenak, Kalitate Kontrolako Liburuko fitxa normalizatueta sinatuko dute, onarpenaren edo ukatzearen emaitzen jakinararen gainean daudela adierazteko.

3. ATALA

OBREN AMAIERA

13. artikulua.- Kalitatea kontrolatzeko dokumentazioa.

1.- Obra amaitu ondoren, obra egikaritzeko zuzendariak dagokion elkargo profesionalean utziko du kontrolaren jarraipenaren dokumentazioa, edo, hala badagokio, eskumeneko administrazio publikoan utziko du.

2.- Obrako Azken Ziurtagiria dokumentu ofiziala izango da, eta obrak Egikaritze Proiektuaren kalitatezko espezifikazio guztiak betetzen dituela bermatuko du.

3.- Abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretuak, elkargoaren oniritziaren beharrezkotasunari buruzkoak, edo haren ordezkariak ezarritakoari jarraituz, Obrako Azken Ziurtagiriaren oniritzia eskuratzeko ezinbestekoa izango da obraren jarraipenari buruzko nahitaezko dokumentazioa aurkezteko obligazioa betetzea, Kalitate Kontrolako Liburua, dekretu honen 12. artikuluan arautua, barnean hartuta.

4. ATALA

IKUSKAPENAK

14. Artikulua.- Obren ikuskapenak.

1.- Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailak ikuskatu ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoan egikaritzen ari den edozein obra, sustatzaileari eta zuzendaritza fakultatiboari jakinarazi ondoren, dekretu hau betetzen duela egiaztatzeko.

2.- Ikuskapen horren akta egingo da, eta lehen aipatutako saileko ordezkariak, sustatzaileak eta zuzendaritza fakultatiboak sinatuko dute.

3.- Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean eremu horiei dagozkien zereginak dituen zuzendaritzak txosten bat egingo du, ikuskatutako obretan dekretu hau zenbateraino betetzen den adierazteko. Txosten hori sustatzaileari, obren zuzendaritza fakultatiboari eta dagozkion elkargo ofizialei helaraziko zaie. Halaber, Kalitate Kontrolako Liburuari erantsiko zaio txosten hori, dokumentu gisa.

4.- Aurreko idatz-zatian aipatutako txostena loteslea izango da sustatzailearentzat, obraren zuzendaritza fakultatiboarentzat eta elkargo ofizialentzat, bakoitzaren eginkizunen barruan.

III. KAPITULUA

KALITATEA KONTROLATZEKO ERAKUNDEAK ETA KALITATE-KONTROLERAKO SAIAKUNTZA-LABORATEGIAK

15. artikulua.- Kalitatea Kontrolatzeko Erakundeak.

1.- Azaroaren 5eko 38/1999 Legeak, Eraikuntza Antolatzeari buruzkoak, 14. artikuluan aipatutako kalitatea kontrolatzeko erakundeek esku hartu behar badute, erakunde horiek nahikoa ahalmen izan beharko dute, bai eta jardungo duten arlorako beharrezko baliabide material eta giza baliabide egokiak ere, eta, esku hartzerakoan, obran diharduten gainerako eragileetatik aparte esku hartuko dute.

2.- Kalitatea kontrolatzeko erakundeek, zenbait alderdi nahitaez bete beharreko araudira egokitzeari buruzko txostenak egitean, proiektuak ikuskatzeko zereginetan, obra egikaritzen laguntzean edo egiaztagiriak egitean, jarduerari ekin aurretik erantzukizunpeko adierazpena egin beharko dute, artikuluko honen 5. idatz-zatian adierazitakoari jarraituz.

3.- Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailaren sailburuak emandako aginduaren bidez arautuko dira kalitatea kontrolatzeko erakundeen esku-hartzea nahitaez beharko duten kasuak.

4.- Administrazioak sustatutako obretan, obraren arduraduna den sailaren zerbitzu teknikoek parte hartu ahal izango dute, kalitatea kontrolatzeko erakunde gisa, eta horretarako ahalmen nahikoa izango dute, hala izendatuz gero.

5.- Kalitatea kontrolatzeko erakundeek erantzukizunpeko adierazpena egingo dute, martxoaren 31ko 410/2010 Errege Dekretuak, erakunde horiei eskatzen zaizkien betekizunak garatzen dituenak, ezarritakoaren arabera, eta dekretu honen I. eranskineko ereduari jarraituz. Adierazpen hori aurkeztuko zaio eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean arlo horiei dagozkien zereginen ardura duen zuzendaritzari.

6.- Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuz gero, kontrol-erakundeak gaitasuna du, aurkeztutako unetik aurrera, eskatzen diren baldintzak betetzen dituela adierazitako jarduera horretan aritzeko, egoki diren egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-jardueren kalterik gabe, dekretu honen 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Erantzukizunpeko adierazpen hori ez bada aurkezten, edo han ageri den funtsezko edozein datu, adierazpen edo erantsitako dokumentu zuzena ez bada, gezurra bada edo ez bada eman, horren berri izaten den unetik aurrera ezingo zaio jarraipenik eman ukitutako eskubidearen gauzatzeari edo jarduerari, eta horretarako administrazio-ebazpena emango da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 71. bis artikulua 4. idatz-zatian ezarritakoari jarraituz, betiere dagozkion erantzukizun penal, zibil edo administratiboen kalterik gabe.

7.- Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean jarduera-eremu horiei dagozkien zereginak dituen zuzendaritzak Eraikuntzaren Kode Teknikoaren alorreko eskumena duen ministerioari helaraziko dizkio erakundeen erantzukizunpeko adierazpenean ageri diren datuak, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez sortutako Kode Teknikoaren Erregistro Orokorrean sartzeko.

16. artikulua.- Kalitatea kontrolatzeko saiakuntza-laborategiak.

1.- Nahitaez bete beharreko arauak eta Eraikuntzaren Kode Teknikoan, jarraibide teknikoetan, araudietan eta baldintza teknikoan agiri ofizialetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko saiakuntza, zerbitzu-proba eta analisi guztiak egin behar dituzte artikuluko honen 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera erantzukizunpeko adierazpena egin duten eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko saiakuntza-laborategiek.



2.- Aurreko betekizuna aplikatuko zaie, halaber, eraikuntzak jarriko diren lursailen azterketa geoteknikoak egiteko saiakuntzei.

3.- Kalitatea kontrolatzeko saiakuntza-laborategiek erantzukizunpeko adierazpena egingo dute, martxoaren 31ko 410/2010 Errege Dekretuak, erakunde horiei eskatzen zaizkien betekizunak garatzen dituenak, ezarritakoaren arabera, eta dekretu honen I. eranskineko ereduari jarraituz. Adierazpen hori aurkeztuko zaio eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean arlo horiei dagozkien zereginen ardura duen zuzendaritzari.

4.- Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuz gero, saiakuntza-laborategiak gaitasuna du, aurkeztutako unetik aurrera, eskatzen diren baldintzak betetzen dituela adierazitako jarduera horretan aritzeko, egoki diren egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-jardueren kalterik gabe, dekretu honen 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Erantzukizunpeko adierazpen hori ez bada aurkezten, edo han ageri den funtsezko edozein datu, adierazpen edo erantsitako dokumentu zuzena ez bada, gezurra bada edo ez bada eman, horren berri izaten den unetik aurrera ezingo zaio jarraipenik eman ukitutako eskubidearen gauzatzeari edo jarduerari, eta horretarako administrazio-ebazpena emango du eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean jarduera-eremu horiei dagozkien zereginak dituen zuzendaritzako titularrak, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 71. bis artikulua 4. idatz-zatian ezarritakoari jarraituz, betiere dagozkion erantzukizun penal, zibil edo administratiboaren kalterik gabe.

5.- Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean jarduera-eremu horiei dagozkien zereginak dituen zuzendaritzak Eraikuntzaren Kode Teknikoaren alorreko eskumena duen ministerioari helaraziko dizkio laborategien erantzukizunpeko adierazpenean ageri diren datuak, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez sortutako Kode Teknikoaren Erregistro Orokorrean sartzeko.

17. artikulua.- Laborategien eta erakundeen ikuskapen-araubidea.

1.- Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean jarduera-eremu horiei dagozkien zereginak dituen zuzendaritzak zaindu beharko du laborategiek eta erakundeek betetzen dituztela eskatzen zaizkien baldintza teknikoak. Horretarako, laguntza teknikoaren emaitzak frogatu, egiaztatu eta ikertu ahal izango ditu; halaber, instalazioak ikuskatu ahal izango izango ditu, bai eta gertaerak, ekintzak, elementuak, jarduerak, balioespenak eta gerta daitezken jazoerak ere, hurrengo idatz-zatietan ezarritakoari jarraituz.

2.- Aurreko idatz-zatian aipatutako zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen badu, laborategiek eta erakundeek beren jardueran aritzeko bete behar dituzten baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea helburu hartuta, dokumentu hauek eskatu ahal izango ditu:

- a) Identifikazio-datuak: Eraketa-eskritura, eta sozietatearen estatutuak edo banakako enpresaburua titularrak dela egiaztatzen duen agiria, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.
- b) Laborategiaren edo erakundearen jardueraren legezko egoera egiaztatzen duten agiriak, dagokion erantzukizunpeko adierazpenaren kopia barnean hartuta.
- c) Sinatutako erantzukizun zibileko aseguruaren poliza eta azken indarraldiari dagokion ordainketaren agiria, edota beste berme-tresna batzuen egiaztagirak; esate baterako, abalen edo fidantzen agiriak, ematen dituen laguntza teknikoaren arabekoak.
- d) Jarduera egiteko baliatzen den establezimenduak, hala badagokio, horrelako instalazioek bete beharreko segurtasun-baldintzak, baldintza teknikoak eta ingurumenari dagozkionak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak.



- e) Kokapen-planoa, udalerria eta sarbideak adierazita.
- f) Lokalen planoak, eta eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak.
- g) Zuzendarien, teknikarien eta langileen datuak, bakoitzaren lanbide-kualifikazioa, zereginak, lan-harremana eta arduraldia adierazita.
- h) Erabilgarri dituen makina, tresna eta software guztiei buruzko datuak, dagokionaren arabera, haien ezaugarriak eta prozedurak adierazita.
- i) Dekretu honen 18. eta 19. artikuluetan azaldutako baldintzen arabera kalitatea kudeatzeko sistemari dagokion azken kanpo-auditorien egiaztagiria.
- j) Kalitatea kudeatzeko sistemarekin eta laguntza teknikoak emateko ezarritako prozedurekin lotutako beste barne- edo kanpo-auditorien egiaztagiria, ebaluazioak edo ziurtagiriak, halakorik izanez gero.
- k) Laborategien kasuan, eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean jarduera-eremu horiei dagozkien zereginak dituen zuzendaritzak deitutako kontraste-saiakuntzen kanpainetan parte hartu izana egiaztatzen duten agiriak.

Laborategiak edo erakundeak ez baditu aurkeztzen eskatutako dokumentuak, edo, aurkeztutako agiriak aztertu ostean egiaztatuz gero ez dituela betetzen eskatutako baldintzak, ezingo du jarduerarekin jarraitu, eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean jarduera-eremu horiei dagozkien zereginak dituen zuzendaritzaren titularraren ebazpenaren bidez egoera hori adierazi ostean.

3.- Aurreko idatz-zatian adierazitakoaren kalterik gabe, aipatu zuzendaritzak laborategiak edo erakundeak *in situ* ikuskatu ahal izango ditu, eskatzen zaizkien baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko. Ikuskaritza kontraste-saiakuntzak egitea eskatu ahal izango da, aipatu zuzendaritzako ordezkariak erabakiko duen laborategiaren bidez, eta ikuskatutako laborategi edo erakundeak bertan egoteko aukera izango du.

Ikuskapen horren akta egingo da, bi kopian, eta laborategi edo erakundearen eta zuzendaritzaren ordezkariak sinatuko dute. Akta hori arxivatuko da, kalitate-sistemaren erregistro gisa, eta haren kopia Administrazioaren eskuetan geratuko da.

Ziurtapeneko Erakunde Nazionalak (ENAC) egiaztatutako laborategi eta erakundeak ikuskapen teknikoetatik salbuetsita daude, baina jardueran aritzeko legeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, agiriak aurkeztuta, hala eskatuz gero.

Ikuskapen teknikoak egiteko bisita amaituz gero desadostasun-aktaren bidez, eskatutako baldintzak betetzen ez direlako, laborategiak edo erakundeak ezingo du jarduerarekin jarraitu, eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean jarduera-eremu horiei dagozkien zereginak dituen zuzendaritzaren titularraren ebazpenaren bidez egoera hori adierazi ostean.

4.- Kalitatea sustatzea eta bermatzea helburu hartuta, eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean jarduera-eremu horiei dagozkien zereginak dituen zuzendaritzak ezarri ahal izango du laborategien arteko kontraste-saiakuntzak egiteko betebeharra, egoki irizitako aldizkakotasunez, laborategiek saiakuntzak egiteko erabiltzen dituzten sistemen eraginkortasunari buruzko emaitzak lortze aldera.

18. artikulua.- Kalitatea kontrolatzeko erakundearen kalitatea kudeatzeko sistema.

Lehen aipatutako 410/2010 Errege Dekretuaren I. eranskinaren 1.b atalean adierazitako betekizuna (UNE-EN ISO/IEC 17020 arauaren arabera kalitatea kudeatzeko sistema bat ezarrita izatea) honako modu hauetako batean justifikatu beharko da:



a) Ziurtapeneko Erakunde Nazionalak (ENAC) edo Ziurtapenerako Europako Lankidetzako (EA) kide den europar erakunde homologo batek emandako urteko egiaztagiria, emandako ziurtagiriaren irismena adierazten duena.

b) Urteko kanpo-auditoria, aurrekoek egiaztatutako erakundeek egina, kalitate-sistemak egiaztatzeko erakundeentzako UNE-EN ISO/IEC 17021 arauen arabera, UNE-EN ISO/IEC 17020 arauak eskatutako baldintzak beteta.

c) Urteko kanpo-auditoria, aurrekoek egiaztatutako erakundeek egina, UNE-EN ISO/IEC 17021 arauen arabera, kalitate-sistema UNE-EN ISO 9001ekin bat datorrela ebaluatzen duena, eta aipatu Errege Dekretuan laguntza teknikoa emateko jardueretarako ezarritako gainerako baldintzak (bai baldintza teknikoak, bai langileei buruzkoak) betetzen dituela egiaztatzen duena.

19. artikulua.- Kalitatea kontrolatzeko saiakuntza-laboregien kalitatea kudeatzeko sistema.

Lehen aipatutako 410/2010 Errege Dekretuaren II. eranskinaren 1.b atalean adierazitako betekizuna (UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren araberrako kalitatea kudeatzeko sistema bat ezarrita izatea) honako modu hauetako batean justifikatu beharko da:

a) Ziurtapeneko Erakunde Nazionalak (ENAC) edo Ziurtapenerako Europako Lankidetzako (EA) kide den europar erakunde homologo batek emandako urteko egiaztagiria, emandako ziurtagiriaren irismena adierazten duena.

b) Urteko kanpo-auditoria, aurrekoek egiaztatutako erakundeek egina, kalitate-sistemak egiaztatzeko erakundeentzako UNE-EN ISO/IEC 17021 arauen arabera, UNE-EN ISO/IEC 17025 arauak eskatutako baldintzak beteta.

c) Urteko kanpo-auditoria, aurrekoek egiaztatutako erakundeek egina, UNE-EN ISO/IEC 17021 arauen arabera, kalitate-sistema UNE-EN ISO 9001ekin bat datorrela ebaluatzen duena, eta dagokion saiakuntzaren egokitasun teknikoa eta aipatu Errege Dekretuan ezarritako gainerako baldintzak (bai baldintza teknikoak, bai langileei buruzkoak) betetzen direla egiaztatzen duena.

IV. KAPITULUA

KALITATEA HOBETZEKO TRESNAK

20. artikulua.- Dokumentu aitortuak.

Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen saileko sailburuak emandako aginduaren bidez ezarriko da Eraikuntzako Kode Teknikoko dokumentu aitortuak izapidetzeko eta onesteko berariazko prozedura, aipatu kodea egokitze Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen eta biztanleriaren behar zehatzetara. Halaber, aipatu sailaren eginkizuna izango da dokumentu onetsiak Eraikuntzaren Kode Teknikoaren Erregistro Orokorreko dagokion atalean inskriba daitezen sustatzea.

21. artikulua.- Erakunde baimenduak.

Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen saileko sailburuak emandako aginduaren bidez ezarriko da produktu edo sistema berritzaileen egokitasunaren ebaluazio teknikoak egiteko erakunde baimenduak edota Eraikuntzako Kode Teknikoaren aplikazioa bideratzen duten zerbitzuak emateko erakunde eta entitateak bermatzen dituzten beste baimen edo ziurtagiriak aitortzeko berariazko prozedura. Halaber, aipatu sailaren eginkizuna izango da erakunde horiek Eraikuntzaren Kode Teknikoaren Erregistro Orokorreko dagokion atalean inskriba daitezen sustatzea.

**22. artikulua.-** Kalitate-profilak, -ziurtagiriak eta -bereizgarriak.

1.- Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailak ezarri ahal izango ditu eraikuntzen profil edo kalitate-mailak, nahi izanez gero aplikatzeko. Profil edo maila horiek derrigorrezko betekizunetarik haratago egongo dira, eta haien ezaugarriak ebaluatzeko eta aitortpenak egiteko berariazko prozedurak arautuko dira.

2.- Halaber, aipatu sailak eraikuntzako material, produktu edo elementuen borondatezko kalitate-bereizgarriak eta marka edo zigiluak ezar ditzake, bereizgarri horiek emateko berariazko prozedurak araututa.

3.- Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailaren eginkizuna izango da aurreko idatz-zatietan adierazitako aitortpenak Eraikuntzaren Kode Teknikoaren Erregistro Orokorreko dagozkien ataletan inskriba daitezzen sustatzea.

V. KAPITULUA**ERAIKUNTZAREN KALITATEA SUSTATZEKO BATZORDEA****23. artikulua.-** Eraketa eta abxikimendua.

1.- Eraikuntzaren Kalitatea Sustatzeko Batzordea eratu da, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan arlo horretan egiten diren jardunen jarraipena egiteko organo gisa.

2.- Eraikuntzaren Kalitatea Sustatzeko Batzordea eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailari abxiki zaio.

24. artikulua.- Osaera.

1.- Eraikuntzaren Kalitatea Sustatzeko Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean eremu horiei dagozkien zereginak dituen zuzendaritzako titularra.

– Eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean eremu horiei dagozkien zereginak dituen zuzendaritzako bi ordezkari.

– Eusko Jaurlaritzan lurralde-antolamenduaren alorreko eskumena duen saileko ordezkari bat.

– Eusko Jaurlaritzan garraioen eta herrilanen alorreko eskumena duen saileko ordezkari bat.

– Eusko Jaurlaritzan industria-segurtasunaren, energiaren eta meategien alorreko eskumena duen saileko ordezkari bat.

– Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutuko ordezkari bat.

– Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko ordezkari bat.

– Euskal Herriko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargo Ofizialeko ordezkari bat.

– Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako eta Bizkaiko Ingeniari Industrialen Elkargo Ofizialeko ordezkari bat.

– Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialeko ordezkari bat.

– Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Perituen eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialeko ordezkari bat.

– Euskal Herriko Herri Lanen Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialeko ordezkari bat.

– Euskal Herriko Geologoen Elkargo Ofizialeko ordezkari bat.

- Euskal Autonomia Erkidegoko laborategietako ordezkari bat.
- Euskal Autonomia Erkidegoko kalitatea kontrolatzeko erakundeetako ordezkari bat.
- Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko sustatzaileen eta eraikitzaileen elkarteen ordezkari bat
- EAEko kontsumitzaileen elkarteen ordezkari bat

Idazkaria: eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailean eremu horiei dagozkien zereginak dituen zuzendaritzako teknikari bat.

2.- Aldez aurretik zerrendatutako organo eta erakundeek Eraikuntzaren Kalitatea Sustatzeko Batzordeako hautatutako kideen izendapena izango da Eusko Jaurlaritzan eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen saileko sailburuaren eginkizuna.

3.- Eraikuntzaren Kalitatea Sustatzeko Batzordea osatu behar duten pertsonak izendatzerakoan, gaitasun, ahalmen eta prestakuntza egokiak dituzten emakume eta gizonen presentzia orekatua sustatuko da, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 23. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

25. artikulua.- Egitekoak.

Eraikuntzaren Kalitatea Sustatzeko Batzordeak honako eginkizun hauek ditu:

- a) Dekretu honen aplikazioak sor ditzakeen arazoak aztertzea eta dekretua eguneratzeko neurriak proposatzea.
- b) Eraikuntzaren kalitate-kontrolarekin zerikusia duten gaietan administrazio publiko guztien jardunak koordinatzeko beharrezko neurriak aztertu eta proposatzea.
- c) Eusko Jaurlaritzan eraikuntzaren eta eraikin-kalitatearen alorreko eskumena duen sailari eraikuntzaren kalitateari buruzko informazioa ematea.

26. artikulua.- Funtzionamendu-erregimena.

1.- Eraikuntzaren Kalitatea Sustatzeko Batzordea arautuko da abuztuaren 30eko 238/1996 Dekretuak sorturiko batzorde desagertuak onartutako Barne Erregimeneko Erregelamenduaren arabera, ezarriko diren aldaketen kalterik gabe, eta haren ordez 22/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, II. tituluaren II. kapituluan ezarritakoaren arabera.

2.- Kalitatea Sustatzeko Batzordeko kideek beren jardueretan euskara zein gaztelania erabiltzeko aukera izango dute. Halaber, gai-zerrendetan, aktetan, ziurtagirietan eta testu idatzietan, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzen erabilera bermatuko da.

3.- Batzordeak pertsona fisiko eta juridikoekin izango dituen harremanetan bermatuko da pertsona horiek euskara zein gaztelania erabiltzeko duten eskubidea, bai eta bi hizkuntza horietako edozeinetan arreta jasotzeko eskubidea ere.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehená.- Dekretu hau ez zaie aplikatuko indarrean jarri aurretik honako egoera hauetako batean dauden obrei:

- a) Administrazioak onartutako egikaritze-projektuak dituzten obrak.
- b) Lanbide-elkargoen derrigorrezko oniritzia izapidetuta duten obrak.
- c) Egikaritze-fasean dauden obrak.



Bigarrena.- Kalitate Kontroleko Liburua egiteko fitxa normalizatu berriak onesten ez diren bitartean, dekretu honen 9. artikuluari jarraituz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren bidez onetsitako Kalitate Kontroleko Liburua egiteko fitxa normalizatuak aplikatuko dira, dekretu honen aurka ez dauden heinean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

1. Dekretu hau indarrean jartzean, indargabetuta geratzen dira honako xedapen hauek:
 - a. 238/1996 Dekretua, urriaren 22koa, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailarena, eraikuntzaren kalitatea zaintzeko arauak ematen dituena.
 - b. 69/2004 Dekretua, apirilaren 20koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarena, eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko laborategiak kreditatzeari buruzkoa.
2. Halaber, indarrrik gabe geratzen da lege honetan ezarritakoaren aurka doan maila bereko edo beheragoko xedapen oro.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Etxebizitza eta Gizarte Politiketako sailburuari eskumena ematen zaio dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko egokitzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko.

Bigarrena.- Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko _____(a)ren ____ (e)an.

I. eranskina

"Erantzukizunpeko adierazpena" egiteko eredua

**ERAIKUNTZAREN KALITATEA KONTROLATZEKO ERAKUNDEAREN
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

erakundeak,

jaunak/andreak,

_____ NAN duenak, aipatu erakundearen legezko ordezkari gisa, sozietatearen
helbidea _____ kaleko
_____ zenbakian izanik,

_____ posta-kodea, _____ udalerrria,
probintzia,

_____ autonomia-erkidegoa,

_____ IFK, harremanetarako pertsona _____ izanik, telefonoa _____,
faxa _____,

eta e-maila _____

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

- Laguntza teknikoa ematen duela, ondorengo orrietan adierazita dauden tokietako zeritroen bidez, zehaztuta dauden jarduera-eremuetan.
- Erakundeak betetzen dituela martxoaren 31ko 410/2010 Errege Dekretuak, eraikuntzaren kalitatea kontrolatzen duten erakundeek eta eraikuntzaren kalitate-kontrolerako saiakuntzak egiten dituzten laborategiek jardueran aritzeko bete beharreko baldintzak garatzen dituenak, dagokion jarduerarako ezarritako baldintzak.
- Hala egiaztatzen duten agiriak dituela, aipatutako martxoaren 31ko 410/2010 Errege Dekretuaren I. eranskinean xedatuta dagoenari jarraituz.
- ____/2012 Dekretua, _____(a)ren ____ (e)koa, eraikuntzaren kalitatearen kontrola arautzen duena, betetzen duela.

- Eremua: _____

Fasea: _____

- Eremua: _____

Fasea: _____

- Ekitaldiari edo jarduerari dagokion aldi guztian betetzeko konpromisoa hartzen duela, eta adierazpen honi eragiten dion edozein aldaketa eskumeneko organoari jakinaraziko diola.

- Aldeko auditoria, ebaluazio tekniko edo ziurtagiriak dituela.

- Erantzukizun-aseguru bat edo beste berme-tresna batzuk (abalak, fidantzak...) dituela, ematen dituen laguntzen arabera.

Eta hala jasota gera dadin, erantzukizunpeko adierazpen hau, ____ orri dituen, sinatzen du.

_____(e)n 20____(e)ko _____(a)ren ____ (e)an



(sinadura eta zigilua)

Sinatua:

(izen-abizenak)

**ERAIKUNTZAREN KALITATEA KONTROLATZEKO ERAKUNDEAREN
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA: LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO
BALIATUTAKO LEHEN ZENTROA**

erakundeak,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

- Zentro nagusiaren bidez laguntza teknikoa ematen duela honako eremu hauetan:

_____ zentroa,

_____ kaleko _____

zenbakian,

_____ posta-kodea, _____ udalerria,

_____ probintzia, _____

autonomia-erkidegoa,

_____ IFK, harremanetarako pertsona _____

izanik,

telefonoa _____, faxa _____, eta e-maila _____

| | |
|-------------|--|
| Eremua | |
| Eragina (*) | |
| Fasea | |

| | |
|-------------|--|
| Eremua | |
| Eragina (*) | |
| Fasea | |

| | |
|-------------|--|
| Eremua | |
| Eragina (*) | |
| Fasea | |

| | |
|-------------|--|
| Eremua | |
| Eragina (*) | |
| Fasea | |



| | |
|-------------|--|
| Eremua | |
| Eragina (*) | |
| Fasea | |

(*) Zehaztu zer erakin-motatan jarduten duen, azaroaren 5eko 38/1999 Legeak, erakuntza antolatzeari buruzkoak, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.



**ERAKUNTZAREN KALITATEA KONTROLATZEKO ERAKUNDEAREN
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA: LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO
BALIATUTAKO _____ ZENTROA**

erakundeak,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

- _____ zentroaren bidez laguntza teknikoak ematen duela honako eremu hauetan:

_____ zentroa, _____

_____ kaleko

zenbakian,

_____ posta-kodea, _____ udalerria,

_____ probintzia, _____

autonomia-erkidegoa,

_____ IFZ, harremanetarako pertsona _____

izanik,

telefonoa _____, faxa _____, eta e-maila _____

| | |
|-------------|--|
| Eremua | |
| Eragina (*) | |
| Fasea | |

| | |
|-------------|--|
| Eremua | |
| Eragina (*) | |
| Fasea | |

| | |
|-------------|--|
| Eremua | |
| Eragina (*) | |
| Fasea | |

| | |
|-------------|--|
| Eremua | |
| Eragina (*) | |
| Fasea | |

| | |
|-------------|--|
| Eremua | |
| Eragina (*) | |
| Fasea | |



(*) Zehaztu zer erakin-motatan jarduten duen, azaroaren 5eko 38/1999 Legeak, erakuntza antolatzeari buruzkoak, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

ERAIKUNTZAREN KALITATEA KONTROLATZEKO SAIKUNTZA-LABORATEGIAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

_____ laborategiak,
 _____ jaunak/andreak
 _____ zenbakiko NAN duenak,

aipatu laborategiaren legezko ordezkari gisa, honako helbide honetan dagoen establezimendu fisikoaren bidez zerbitzuak ematen dituenak:

_____ kaleko _____ zenbakia,
 _____ posta-kodea, _____ udalerrria, _____ lurraldea,
 _____ IFK, harremanetarako pertsona _____ izanik, telefonoa _____,
 faxa _____,
 eta e-maila _____

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

- Establezimendu horrek betetzen dituela martxoaren 31ko 410/2010 Errege Dekretuak, eraikuntzaren kalitatea kontrolatzen duten erakundeek eta eraikuntzaren kalitate-kontrolerako saiakuntzak egiten dituzten laborategiek jardueran aritzeko bete beharreko baldintzak garatzen dituenak, dagokion jarduerarako ezarritako baldintzak.
- Hala egiaztatzen duten agiriak dituela, aipatutako Errege Dekretuaren II. eranskinean xedatuta dagoenari jarraituz.
- Laguntza teknikoa ematen duela honako saiakuntza eta zerbitzu-proba hauetan:

1. Aipatu Errege Dekretuaren II. eranskinean jasotako eremuetako saiakuntzak eta zerbitzu-probak, ondoren zehaztuta daudenak:

_____ saiakuntzak.

_____ arauzko saiakuntzak.

Beste saiakuntza batzuk: _____

_____ saiakuntzak.

_____ arauzko saiakuntzak.

Beste saiakuntza batzuk: _____

_____ saiakuntzak.

_____ arauzko saiakuntzak.



Beste saiakuntza batzuk: _____

2. Erantsitako zerrendetan jasotako saiakuntza eta zerbitzu-probak.

- ____/2012 Dekretua, _____ (a)ren ____ (e)koa, eraikuntzaren kalitatearen kontrola arautzen duena, betetzen duela.

- Ekitaldiari edo jarduerari dagokion aldi guztian betetzeko konpromisoa hartzen duela, eta adierazpen honi eragiten dion edozein aldaketa eskumeneko organoari jakinaraziko diola.

_____ (e)n 20 ____ (e)ko _____ (a)ren ____ (e)an

(sinadura eta zigilua)

Sinatua:

(izen-abizenak)

